

<< Ondare arkitektonikoa >>

A. Azkarate - M. Ruiz de Ael - A. Santana

Área 1- Patrimonio Cultural

1. Arloa: Kultura Ondarea

(euskarazko bertsioa)

Febrero, 2003ko otsaila

ONDARE ARKITEKTONIKOA

Agustin Azkarate
(Euskal Herriko Unibertsitatea)
Mariano J. Ruiz de Ael
(Euskal Herriko Unibertsitatea)
Alberto Santana
(Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala)

Gasteiz, 2003

AURKIBIDEA

1. ZERTAZ ARI GARA? DEFINIZIOA, BILAKAERA KONTZEPTUALA ETA ARAUETAN DUEN ISLA (A.A. eta A.S.)

- 1.1. Oinarri kontzeptualak**
- 1.2. Arau-oinarriak (Funtsezko testuak)**
 - 1.2.1. Nazioarteko araudia*
 - 1.2.2. Espainiar estatuko araudia*
 - 1.2.3. EAEko araudia*

2. ZER GERTATU DA ETA ZER GERTATZEN ARI DA? DIAGNOSIA (A.A. eta A.S.)

- 2.1. Transformazio nagusiak**
- 2.2. Inbentarioa eta katalogazioa**
 - 2.2.1. Aurretiko errolda, topografikoa edo behin-behineko inbentarioa*
 - 2.2.2. Inbentario zientifikoa edo inbentario orokorra*
 - 2.2.3. Emaizak eguneratzea*
- 2.3. Esku-hartzea eta zaharberritzea. Zenbait kontu**
- 2.4. Balioztatzea eta sozializazioa**
 - 2.4.1. Ondarea zabaltzea*
 - 2.4.2. Ondarea hezkuntzan*
 - 2.4.3. Ondarea baliabide sozioekonomiko gisa*

3. ZER HOBE DAITEKE? PROPOSAMENAK (A.A. eta A.S.)

- 1. Orokorra**
 - 3.1.1. Kultura-ondarearen sektorean I+G politikak sustatzea*
- 3.2. Inbentarioa eta katalogazioa**
 - 3.2.1. Gizartearen adostasuna lortzea eta trebakuntza profesionala hobetzea*
 - 3.2.2. Behin-behineko inbentarioaren eraginkortasuna*
 - 3.2.3. Inbentario orokorra: zientifikoa, globala eta esplizitua*
 - 3.2.4. Inbentarioak eta katalogoak etengabe eguneratzea.*
- 3.3. Esku-hartzea eta zaharberritzea**
 - 3.3.1. Zaharberritzea jakintza-prozesu gisa ulertzea*
 - 3.3.2. Ondare Eraikiaren balio integralak gehiago errespetatzea*
 - 3.3.3. Esku hartzeko irizpide batzuk egokitzea eta hobetzea. Hobe daitekeen testua: 214/1996 Dekretua*

4. XX. MENDEKO ONDARE ARKITEKTONIKOA (M.J.R.A.)

- 4.1. Sortzen ari den ondarearen hauskortasuna**
- 4.2. Ondare hori nazioartean legitimatzea. Arkitekturako artxiboan eta museoan sorrera**
- 4.3. Arkitekturaren Euskal Museoa**
- 4.4. Garatzeko aukera**

1. ZERTAZ ARI GARA? DEFINIZIOA, BILAKAERA KONTZEPTUALA ETA ARAUETAN DUEN ISLA.

1.1. Oinarri kontzeptualak

Zentzurik zabalenean, ondarea deritzo iraganetik oinordetzan hartutako ondasun-multzoari, eta, ondorioz, ondare arkitektonikoa honela defini daiteke: eraikitako ondasunen multzoa, edozein izaeratakoak direnak eta gizarteak balio kulturala ematen diena edo balio kulturala onartzen diena. Definizio dinamikoa da hori, balio kulturalak aldakorak baitira, eta horrek esan nahi du ondarearen kontzeptua bera etengabe eraikitzen ari dela eta ondarea osatzen duten objektuek multzo irekia osatzen dutela, alda daitekeena eta, are gehiago, elementu berriak onar ditzakeena.

Ondarearen kontzeptu berri, zabal, malgu eta dialetiko hau eratzea prozesu berria da eta oraindik ez da amaitu, eztabaida irekia da. XX. mendeko azken hamarkadetako ezaugarrietako bat izan da Ondare Arkitektonikoaren eta, oro har, Kultura Ondarearen kontzeptuak eta metodologiak berritzen joatea. Beraz, kontzeptuek eta metodologiek izan duten bilakaera gogoraraztea komeni da, jarrera zaharkituak saihesteko eta azkenaldian nazioarteko komunitateak adostu dituen irizpideen arabera jokatzeko.

1. Aurreko belaunaldietatik oinordetzan hartutako eraikinekiko interesa etengabea izan da aspaldi-aspalditik Europako historian, baina, hala ere, interes hark gaurkoak ez bezalako konnotazioak zituen (sakraltasunari errespetua, materialen berrerabilera, garai bateko lanekiko miresmena, etab.). Argien Mendearekin batera iritsi ziren arkitekturaren balio dokumentalari eta historikoari buruzko lehen formulazio zehatzak, bai eta etorkizuneko belaunaldiei hura kontserbatu eta transmititzeko beharrari buruzkoak ere. Kontzientzia berri hori pixkanaka onartzeak berehala sortu zituen eztabaidak, bai zein monumentu zaindu behar ziren erabakitzeke, bai eta behar bezala kontserbatzeke behar zuten tratamendua zein zen erabakitzeke. Beraz, laster hasi ziren lehen inbentarioak eta katalogoak planteatzen, eta denbora gutxian formulatu ziren zaharberritzeari buruzko lehen teoriak.

Hala ere, XVIII. mendeko epigonoetatik XX. mendeko lehen hamarkadaraino, "monumentu" arkitektonikoaren kontzeptua, hain zuzen, balio historiko, estetiko edo sinboliko garrantzitsua zuten eraikinei lotuta egon zen. XIX. mendeko arkitekturara egindako lehen gerturatze kontzeptualetan, "objektu" horiek merezi zuten tratamenduari buruz bakarrik eztabaidatzen zuten, inoiz ez zuten horien jatorria aipatzen. Zaharberritzearen inguruko mende horretako teoriak (E. Viollet-le-Duc-ek paradigmatizatutako *restauro stilistico* delakoa, R.Stern-ek eta G. Valadier-ek Erromako Foroan egindako *restauro archeologico* izenekoa edo J.Ruskin-en zaharberritzearen aurkako hausnarketak) beti izan zituzten oinarri eraikin edo monumentu bereziak.

2. Hala ere, harik eta XX. mendea aurrera samar joan arte ez zen baloratzen hasi monumentu arkitektonikoa bere testuinguruan. G. Giovannoni izan zen *restauro scientifico* izena hartu zuen korrontearen figura nagusia, eta huraxe izan zen lehena ohartarazten eta modernitatearen ikuspuntutik hausnartzen *zentro historikoak defendatzeko* arazoei buruz, *ingurumenaren errespetuaren* kontzeptua sartzeari buruz eta *arkitektura txikiak* baloratzeari buruz¹; ondare arkitektonikoaren hiru esparru horiek, halere, ez dira kontuan hartu orain dela gutxira arte, eta, egin den balorazioari esker, XVIII. mendetik oinordetzan hartutako ikuspegi winckelmannndarra –idealista eta estetizista– gainditu egin da behin betiko. Neurri handi batean, XX. mendeko azken laurdenean nazioarteko aholkuek funtsezko ideia horien inguruko edukiak ekarri dituzte. Ondare eraikia kontserbatzeko eta zaharberritzeko printzipioak aipatzen dituen azken Gutunean (Krakovia, 2000), esate baterako, "ondare arkitektonikoa eta hiri- eta paisaia-ondarea" aipatzen dira.

¹ J. RIVERA, Restauración arquitectónica desde los orígenes hasta nuestros días. Conceptos, Teoría e Historia, AAVV, *Teoría e Historia de la Restauración*, Madril, 1997, 143. or.

3. XX. mendeko azken hamarkadan, “monumentu historiko eta artistikoei” buruzko ohiko kontzepzioa zabaldu egin zen eta ondare arkitektonikoaren ikuspegi integrala sendotu zen. Ondare horren ezaugarriak hauek dira:

a) *Ondare arkitektonikoaren babes-eremua zabaltzea*. “Monumentua” kontzeptua esanahi pluralagoa eta demokratikoagoa duten “kultura-ondasun” edo “kultura-ondare” kontzeptuekin ordezkatzeko dibertsifikatu egin ditu ikuspuntuak; ondorioz, geroz eta arkitektura gehiago hartzen ditu eta objektuen arkitekturatik (monumentuena) multzo historiko, zentro historiko, guneko historiko, paisaia kultural, arkitektura industrial, herri-arkitektura eta antzekoetara pasatu garen prozesua garatu da.

b) *Ondarearen ikuspegi eurozentrista eta mundializazioa garatzea*. Ondare kulturala zaintzeko interesa Europako fenomeno bat izan zen jatorriz. Ondorioz, lehen gutunetako eta aholkuetako edukia mendebaldekoen kezken eta ikuspegiaren isla besterik ez zen, eta ez zituen kontuan hartzen arbasoen ondarea ulertu, babestu eta transmititzeko beste modu batzuk. UNESCOk 1972an onartutako Munduko Ondare Kulturala eta Naturala Babesteko Hitzarmena adostea gertaera garrantzitsua izan zen, eta haren atzetik eskualde mailako hainbat dokumentu sinatu ziren, mundu osoan aplikatzeko araudi baten esparruan dibertsitatea errespetatzea kontuan hartzen dutenak. *2000ko Krakoviako Gutuna* gauzak ikusteko era berri horren isla besterik ez da. Mundu osorako balio izateko baina mendebaldekoen ikuspegitik idatzitako Atenasko Gutunarekin (1931) eta Veneziako Gutunarekin (1964) alderatuta, azken gutuna ere Europara bakarrik mugatzen den eskualdeko dokumentua da.

c) *Ondarearen potentzialtasunen dibertsifikazioa*. Ondarea memoria kolektiboaren euskarri gisa edo jakintza historikorako ezinbesteko tresnatzat jotzeaz gain, herrien garapen jasangarriko lehen mailako ezinbesteko baliabide sozioekonomiko gisa jotzen hasiko gara. Ondarearen azken alderdi hori da, seguru asko, azken urteotan garrantzi gehien hartzen ari dena, “ondarearen industria”, “kultura-baliabideak”, “gure ondarea errentagarri bihurtzea eta kudeatzea” eta beste hainbat kontzeptu gure lexikoan konturatu gabe sartzeraino, edo enpresa multinazionalak mundu mailako ondarearen kudeaketan nola inplikatzeko diren naturaltasunez ikusteraino. Nazioarteko azken gutunetan ohartarazten ari diren bezala, berez egoera positiboa izan arren, kontuan hartu beharreko arriskuak daude oraindik.

Ondarearen kontzepzio berriaren hiru ezaugarri horiek haren demokratizazioa dute ezaugarri komun: identifikazioaren, jakintzaren, adierazgarritasun sozial eta kulturalaren eta ondareaz gozatzeko aukeraren demokratizazioa. Kultura-ondare gisa har daitezkeen esparruak zabaltzea ez da bigarren mailako tipologia arkitektoniko berriak –edo ohiko “Monumentuena” baino kalitate txikiagoa dutenak– sartzeko bakarrik. Ondare eraikia memoria historikoaren identitate-ikur eta euskarri gisa onartzeak berarekin dakar gizarte demokratikoak nekazarien, industrietako langileen edo hiriko burgesiaren eraikin garrantzitsuenak ere ondarearen barnean sartu behar izatea. Izan ere, herrien historian talderik jendetsuenak horiek izan arren, ez dute aukerarik edo bitartekorik izan haien ordezkari izango ziren arkitektura sinbolikoak sortzeko, ez behintzat aristokrazia laikoak edo erlijiosoak bezala, horiek haien nagusitasunaren oroigarri diren “Monumentu” handien sustatzaileak izan baitziren. Nekazaritzako granjak, herrixkak eta paisaiak; fabrikak, langileen etxebizitzak eta industriak eraldatutako paisaiak; gaur egungo hiriak, zabalgunek, ekipamendu publikoak, klase ertainekoen etxebizitzak... azken hamarkadetan ondare arkitektonikoaren esparrua bete duten elementu berriak dira, zeren eta nahiz eta sekula ez diren proiektatu eraikin horietan bizi, lan egin edo erabiltzen zituztenen sinbolo gisa, badute iraganean ahotsik izan ez zuten milioika gizon eta emakumeren erabilera historikoak ematen dien legitimitatea eta haiek ordezkatzeko ahalmena.

Ondare kulturalaren kontzeptu berriaren helburua gure aurreko belaunaldien ahots guztiak jasotzea da. Ondare arkitektonikoa jakintza eta esperientzia historikoaren lehenengo eta funtsezko bitartekoetako bat da, eta, historia sozialak bezala, aristokrazia menderatzailearen gertaeren menpe uzten zuen positibismo tradizionala gaindituta, globala izan nahi du, Ondare eraikiak ere gizartearen globaltasuna ordezkatu nahi du. Historia sozialak ez ditu bereizten goi- edo behe-mailako herri eta zibilizazioak; ez du bereizten garrantzi gehiagoko edo gutxiagoko garai historikorik edo arte-estilorik, eta ez du onartzen tratamendu historiografiko pribilegiaturik merezi duen lehen edo bigarren mailako gizakirik. Ondarearen kontzeptu berria historiaren tratamendu globalizatzaile eta sozialki zuzen horren ondorio gisa sortu da.

Kultura-ondareak –eta zehazkiago ondare arkitektonikoak– iraganeko gizartea osotasun historikoan ordezkatu behar duela onartu ondoren aitortu da pixkanaka ondareak uneko gizarte osoarentzat izan behar duela. Eskubide hori bermatzeak norbanakoarenganaino iristen den dimentsio positiboa du, ondarearen esperientziak garapen pertsonalean eragin baitezake jakintzaren bidez, baina, horrez gain, dimentsio kolektibo ugari ere baditu. Batetik, ondarea integrazio soziala lortzeko bide bat da, iraganeko lana edo ondarea, non komunitate batek bere burua halakotzat hartzen duen eta zeinarekin identifikatzen den; bestetik, ondarea kapitala ere bada, eta komunitateak hartaz baliatzeko eskubidea du, bai bere garapena sustatzeko, bai komunitateko hiritarrek erabiltzeko, bai kanpora begira komunitatearen irudia sustatzeko ikur gisa, bai baliabide ekonomiko dinamizatzaile gisa.

1.2. Arau-oinarriak (Funtsezko testuak)

Nazioarteko legeriak sortutako funtsezko testuak asko dira; beraz, Ondare Arkitektonikoarekin lotuta garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak bakarrik aipatuko ditugu. Horiek irakurrita, aurreko atalean aipatu dugun eta aztertzen ari garen gaiaren bilakaera kontzeptuala ikusiko dugu.

Lehen testuetan ondare arkitektonikoa ez da izendapen horrekin aipatzen. Atenasko Gutunean (1931) “monumentu artistiko eta historikoak aipatzen dira” “ondare artistiko eta arkeologikoaren” ikuspegi orokorragoan. Eta gauza bera gertatzen da Veneziako Gutunarekin (1964), “monumentu eta multzo historiko eta artistikoak” aipatzen baititu; edota 1969ko Konferentziarekin, orduan erabiltzen zen *Kultura Ondare Higiezinari* buruzko legeak eman baitzituen. 1975. urtera arte itxaron behar izan zen Ondare Arkitektonikoaren Europako Gutuna egiteko; gutun horretan gaur egun erabiltzen dugunaren atzeko hizkuntza erabili zen. Hala ere, nabarmendu beharra dago azken dokumentuetan geroz eta gehiagotan erabili dela “Ondare eraikia” (*Built Heritage*), errealitate anizkoitzak integratzen dituen kontzeptu gisa: hondakin arkeologikoak, eraikin edo monumentu bereziak, dekorazio eta eskultura arkitektonikoa, ingurumenarekin eta lurraldearekin lotutako multzo historikoak, paisaia antropizatuak, etab. Ikus ditzagun kontzeptuen eta metodologiaren bilakaera horri arau-forma eman dioten funtsezko testu eta gertaera batzuk:

1.2.1. Nazioarteko araudia

1931. *Atenasko Gutuna*. Monumentu Historikoak Zaharberritzeko Gutuna, Monumentu Historikoen Teknikarien eta Arkitektoen Nazioarteko Lehen Biltzarrak onartua. G. Giovannonik proposatutako *restauro scientifico*-an du jatorria eta hauxe errespetatzea aholkatzen du: “hiriaren izaera eta fisonomia, bereziki monumentu zaharren inguruko eremuetan; eremu horietako giroa bereziki zaindu behar da”. Funtsezko dokumentutzat hartzen da. Geroago Veneziako Gutunean onartzen denez, Atenasko Gutunak kultura-ondasunak defendatzeko eta kontserbatzeko nazioarteko mugimendu zabalaren garapenean lagundu zuen.

1964. *Veneziako Gutuna*. Monumentuak eta Gune Historiko Artistikoak Kontserbatzeari eta Zaharberitzeari buruzko Nazioarteko Gutuna, Monumentu Historikoen Teknikarien eta Arkitektoen Nazioarteko II. Biltzarraren ondoren proposatutakoa. C. Brandi eta R. Pane-ren *restauro critico*-aren hipotesi teorikoetan oinarrituta dago, zeinek balio artistikoei eta formalei historikoei eta dokumentalei baino garrantzi handiagoa ematen baitzieten.

1965. Monumentuen eta Gune Historikoen Nazioarteko Kontseilua (ICOMOS) sortu zen, eta horrek Veneziako Gutuna onartu zuen.

1972. UNESCOk Munduko Kultura eta Natura Ondarea Babesteko Hitzarmena onartu zuen. Orain dela gutxi hogeita hamargarren urteurrena bete du (Budapest, 2002ko ekainaren 24-29a)

1975. *Amsterdamgo Gutuna*. Ondare Arkitektonikoaren Europako Gutuna. Ondare Arkitektonikoari buruzko Europako Biltzarrean sortutako dokumentu garrantzitsua. *Erabateko zaharberitzea* eta *gutxieneko esku-hartzea* kontzeptuak nabarmentzen dira, oinarrian *berrerabileraren* eta *funtzionaltasunaren* irizpideei segituta jarduten zutenen gehiegikerien aurrean; izan ere, irizpide horiei segituta, esku-hartze latzak egin ziren, eta aldatutako eraikinen balio historikoak desagerrarazi ziren, atzera bueltarik gabe. Zoritxarrez, funtzionaltasun hori izan zen ordezkariak izateko gune berriak behar zituzten administrazio autonomo askoren lanen ezaugarria denbora askoan; izan ere, eraikin historiko zaharretara jo eta fatxadismo soilean erori ziren, eta artean mantentzen zuten memoria historikoa suntsitu zuten. Hurrengo urtean (1976) Europako Kontseiluak ebazpen bat kaleratu zuen, sistema legegileak eta arautzaileak ondare arkitektonikoaren kontserbazio integratuaren kondizioetara egokitzeari buruzkoa.

1985. *Granadako Hitzarmena*. "Europako ondare arkitektonikoa babesteko hitzarmena". Hitzarmen honek, 1992ko La Valette-ko Hitzarmenarekin (Arkeologia Ondarea babesteko Europako Hitzarmena) eta 2000ko Florentziako Hitzarmenarekin (Paisaiaren Europako Hitzarmena) batera, Kultura Ondareari buruzko Europako Kontseiluaren gaur egungo araudia osatzen du.

1987. *Herri eta Hirigune Historikoen Kontserbaziorako Nazioarteko Gutuna*. Gizarte guztiei era batera edo bestera eragin dien industria-aroko garatzeko moduak ekarritako degradazioak, kalteak edo suntsitzeak mehatxatu dituen eta izaera historikoa duten guneei buruzkoa da.

1999. *Tokiko Ondare Eraikiaren Gutuna (Charter on the Built Vernacular Heritage)*. Dokumentu garrantzitsua da eta honela definitzen du tokian tokiko ondarea: komunitateek haien habitata sortzeko era natural eta tradizionala. Dokumentu horretan, aldarrikatu eta babestu egiten da ondare hori, kulturaren homogeneizazioaren eta globalizazio sozioekonomikoaren aurrean, oso ahulak diren egitura-motak arriskuan jartzen baitira. Gutun honek Tokiko Ondare Eraikiaren Jerusalemgo Gutunean proposatutako kontserbazioko printzipio orokorrak berresten ditu (1996).

2000. *Krakoviako Gutuna*.

Dokumentu oso garrantzitsua, bai edukiaren aldetik, bai Ondare Arkitektonikoari erreferentzia zehatza egiten diotenetan berriena delako. Ondare eraikiak duen memoria historikoa berreskuratzea aldarrikatzen du (beraz, berriro bultzatzen dira balio dokumentalak), mendetan metatzen joan diren balioak defendatzen ditu (alegia, ustezko jatorrizko egoeraren arabera zaharberitze selektiboaren aurkakoa da) eta zaharberitzeko jarduera ezagutze-prozesu gisa ulertzen du.

1.2.2. *Espainiar estatuko araudia*

Espainiar estatuko legeria urriagoa da, agian frankismoaren etenaldi luzeak nazioarteko korrante garrantzitsuenetatik isolatu egin zuelako Espainia. 1933ko *Ondare Artistiko Nazionalaren Legea* islatzen zen lege errepublikarrak zaharberritzeari buruzko garai hartako Europako ideiekin bat zetozela, “restauro científico” korrontearen irizpideak eta 1931ko Atenasko Gutuna jasotzen baitira legean. Eta indarrean egon zen *Ondare Historiko Espainiarrari buruzko 16/1985 Legea* egin arte. Hala ere, frankismoaren garaian, arkitekto espainiar gehienek –zaharberritzeari buruzko haien teorien inguruko nazioarteko eztabaidatik kanpo– unitate estilistikoa berriro integratzeko esku-hartze violetiano argiak egiten segitu zuten; zaharberritzea monumentuaren zentzua jatorrizko ezaugarrietan berreskuratzeko ekintza gisa ulertzen zuten, eta, ondorioz, balio historiko gehien zuten zatiaren estiloaren garbitasuna eta jatorrizko estiloaren hutsuneak berriz osatzea bilatzen zuten². Ideia horiek –baina zehaztasun gehiagorekin– gaur egun ere bizirik daude, eta, gainera, geroago ikusiko dugunez, EAEko araudira sartzeko arriskua ere badago.

Ondare Historiko Espainiarrari buruzko 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, da orain indarrean dagoena. Kontzeptuen berritzearen eta inertzia historikoaren tartekoa da; hainbat aldiz kritikatu izan dute eta honela kalifikatu izan dute: “ez da batere esplizitua, ez da batere zehatza, babesari, gune historikoei, lurzorua legeari edo estatuaren kontratuei buruzko legeari dagokienez lege eskasa da; lege erabat osatugabea da”³.

1.2.3. *Euskal Autonomia Erkidegoko Legeak*

Kulturari, ondare historikoari, artistikoari, monumentuei, ondare arkeologikoari eta ondare zientifikoari dagokienez, EAEn eskumenak gauzatzean (Konstituzioa, 148.1.16 art.; EAEko Autonomia Estatutua. 10. art.), Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea, uztailaren 3koa, onartu zen, hauei dagokiena: balio historiko, artistiko, urbanistiko, etnografiko, zientifiko, tekniko eta sozialarengatik interes kulturala duten eta, beraz, babestu eta defenditu egin behar diren ondasun guztiak. Hitzaurrean aipatzen den bezala, “Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak autonomia-erkidegoaren eskudun eskusibotzat jotzen ditu ondare historikoa eta artxiboak, liburutegiak eta museoak, estatuarenak direnak izan ezik. Lurralde Historikoen Legeak, bestetik, foru-erakundeei ematen die ondare historiko eta artistikoak, monumentalak eta arkeologikoak kontserbatzeari, zaharberritzeari, hobetzeari eta, hala badagokio, industeari buruzko legea egiteko eta gauzatzeko eskumena, eta haien artxiboen, liburutegien eta museoen gaineko eskumen eskusiboa ematen die”.

Legezko beste bitarteko batzuek ondasun kulturalen babesari eta lurralde- eta hiri-antolamenduari eragiten diete: 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, EAEko Lurralde Antolamenduari buruzkoa; 28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzen dituena; 214/1996 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Ondare urbanizatu eta eraikiak zaharberritzeko jarduera babestuei buruzkoa, batez ere haren I. eranskina: Zaharberritzeko jarduerak, laster aipatuko duguna; eta, azkenik, egiten ari diren plana, EAEko Kultura Ondarearen Lurraldeko Plan Sektoriala.

² J. RIVERA, cit., 153. or.; La restauración monumental en España en el umbral del siglo XXI. Nuevas tendencias: de la Carta de Venecia a la Carta de Cracovia, *I Biennial de la Restauració Monumental, Quaderns Científics i Tècnics de Restauració Monumental*, 13, Diputació de Barcelona, 2002, 31-32. or.

³ *Ibidem*, 33. or.

2. ZER GERTATU DA ETA ZER ARI DA GERTATZEN? DIAGNOSIA

1980tik aurrera, Ondare historiko, artistiko, monumental, arkeologiko eta zientifikoari buruzko eskumen eksklusiboak EAERI transferitzearekin batera, ondare arkitektonikoaren esku-hartzeen kontzeptualizazioan, balorazioan eta aukeretan aldaketa handiak gertatu ziren bata bestearen atzetik. Baina aldaketa guztiak ez ziren estatutuaren garapenaren ondorio izan; Euskal Autonomia Erkidegoa berandu, baina pixkanaka, sartu zen ondareari buruzko Europako eztabaidan, eta horrek ere aldaketak ekarri zituen – baita eragile ekonomiko eta kulturalen eragin globalak ere–; baina egia da une berean gertatu ziren prozesu horiek guztiak hamarkada bakar batean gertatu zirela eta euskal ondare arkitektonikoaren panorama atzera bueltarik gabe aldatu zutela.

Lehen aldaketa, eta administrazioan haren kudeaketan zailtasun gehien sortzen dituen (baita gaur egun ere) gainera, ondare arkitektoniko handia zegoela bat-batean konturatzea izan zen. Ez ziren bat-batean detektatu lurperatutako monumentuak edo ezkutatutako hiriak; egiaz, garai hartan, bistan ez zegoen ezer ez aurkitzeaz gain, balio handiko eraikin batzuk desagertu edo bota ere egin zituzten. Kontuan izan zen ikuspuntua aldatu egin zela: iraganetik oinordetzan hartutako arkitekturari aurre egiteko profesional batzuen ikuspuntua eta tokian tokiko ondare historikoaren balioa estimatzeko gizarteko sektore askoren ikuspuntua.

Laurogeiko hamarkadan, ondare arkitektonikoari dagokionez monumentu historiko eta artistikoetan munduko estatu aberatsenetako baten periferia behartsu izatetik kultura-balioa duten babesteko moduko milaka eraikin dituela ziur izatera pasatu da EAE. Ondarezko elementuen izugarrizko inflazio hori ez zen gertatu alderatzeko aukerak erabat murriztu zirelako bakarrik, ez eta tokian tokiko nortasunaren zeinuak arrazoirik gabe eta atseginez gehiegi baloratu zirelako ere; horren izateko arrazoia historia sozialaren Europako printzipioetan eta kultura-ondarearen globalizazioan oinarritzen da. Horrela, tipologia gehiagori (esate baterako, ondare etnografikoa, industrialak eta garaikidea) egin zitzaizkien lekua, eta ohiko familia arkitektonikoetan ustez balio gutxiago zuten elementu askoren (erlijiosoa, militarra, publikoa, jauregikoa...) balio historikoa eta dokumentala berriro aztertu zen, haien ezaugarri estetikoetatik edo arau estilistikoetatik haratago.

Eraikinei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoaren ezaugarria zen iraganeko eraikinen batez besteko kalitatea ona zela, baina, aitzitik, unibertso mailako *estilo-arkitekturako* lan handirik ez zuela. Lurraldean ondare historiko eta kulturala baloratzeko irizpidea sartu zenez, lehen aipatutako elementu ugari azaleratu ziren eta, ondorioz, horiek ezagutzeko, kontserbatzeko eta balioztatzeko neurriak prestatzeko beharra sortu zen.

Monumentuen urritasunetik kultura-aberastasunera egindako jauzia bat-batekoa izan denez, oraindik ez da behar bezala barneratu, salbuespenak salbuespen, irakaskuntzan, erakundeetan, laneko arloan eta gizartean. Hala ere, onartu beharra dago sektore horietan administrazioa dela, unibertsitateko zenbait ikertzaileen laguntza indibidualarekin, bidea irekiz doana lurraldearen ikuspegi globalari esker eta arautzeko, zigortzeko eta esku hartzeko ahalmenari esker.

Administrazioa da kasu askotan eraikin askoren ondare-izaera jendearen aurrean identifikatzen ari dena, batzuetan erabiltzaileen edo jabeen irizpideen aurka. Oraindik ere jendeak ez ditu ulertzen, "monumentu" kontzeptuarekin ohituta, ondareari buruzko sailkapen eta esku-hartze asko, eta, hala ere, ezinbestekoa da gizartearen konplizitate-maila altua lortzea kontserbaziorako.

Era berean, ezinbestekoa da nabarmentzea oraindik ez dela lortu erabateko konplizitate eta gaitasun teorikorik ondarearen katean parte hartzen duten irakaskuntzako eta arkitekturako profesional gehienen eta administrazioko teknikari gehienen artean. Profesional horien trebakuntzan Artearen Historiak eta Arkitekturak (formalista eta estilistika) pisu gehiegi izateak sakontasuna kentzen dio benetako objektu arkitektonikoak –barietate eta konplexutasun historiko aberatsa dutenak eta estilo edo idea tipologiko baten estereotipora murrizten zailak– ikusteko, aztertze eta interpretatzeko gaitasunari. Interpretazioko baliabide epistemologikoen muga horren ondorioak hauek dira: historialari askok ez dute gaitasunik ondarea baloratzeko eta esku hartzeko proiektuetan orientatzeko giltzarri espezifikoak emateko, arkitektoek gaitasun mugatua dute diagnosis egiteko eta jarduera indibidualizatuen proiektiorako, eta administrazioa ez da gai bere bitartekoen bidez kultura-ondareari buruzko informazioa eguneratuta izateko edo esku hartzeko proiektuen egokitasunaren kontrol kritikoa egiteko.

2.1. Inbentarioa

2.1.1. Aldez aurretiko errolda, inbentario topografikoa edo behin-behineko inbentarioa

Ondare arkitektonikoaren babes eta sustapen globalaren plangintza egiteko eta ondare horren elementu indibidualen gaineko erabaki espezifikoak hartzeko lehen baldintza da babes daitezkeen eraikinen oinarriko identifikazioa, horien errolda orokorrak eginda. Munduko herrialde guztiek egin dute ahalegin gutxiago edo gehiago haien ondare arkitektonikoari buruz informatzeko, Frantzia XVII. mendean abiarazi zen eta oraindik gelditu ez den ereduari segituta, baina emaitzak oso desberdinak izan dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko ondare arkitektonikoaren inbentario zabala egiteko lehen saiakera 1978an egin zen, eta, orduetik, horren inguruko hainbat ekimen jarri dituzte martxan bata bestearen atzetik erakunde publikoek. Horietan, arreta merezi dutenen barietate tipologikoa asko zabalduz joan da eta, kasurik onenean, horri ekiteko tresna kontzeptual beharrezkoak doitu dira, baina, era berean, maiz gertatu dira gainjartzeak edo kopiak, edo ahaleginak beharrik gabe errepikatu dira.

Behin-behineko inbentario horiek, edo inbentario aurrekoak, topografikoak izan ziren, lurralde osoa hartzeko asmoa baitzuten eta landa-lanean bakarrik oinarritzen baitziren. Berrikuntzak aurkitzeko eta ondarearen potentzialtasunen lehen zenbatespen kuantitatiboa egiteko meritua izan zuten, eta esan daiteke euskal ondare arkitektonikoaren orain arteko ikuspegi orokorra eta hiri-plangintzaren baliabide gehienak baldintzatu dituztela. Hala ere, balorazio homogeneoak egiteko irizpiderik ez izatea leporatu behar zaie, trebakuntza mugatua zuten teknikariek egin baitzituzten eta haien beren aztergaiaren definizioa eta hedapena enpirikoki inprobisatu baitzuten, egin ahala, oinarri kontzeptualik gabe eta hausnarketarik eta ondorengo interpretaziorik gabe.

2.1.2. Inbentario zientifikoa edo inbentario orokorra

Ondarearen 1964ko inbentario orokorra (horrek ere nazioarteko mailarik goreneko erreferentzia Frantziako ekimena du) anbizio handiagokoa da, eta ondare eraikia osatzen duten elementuen identifikazio eta lokalizazio topografiko hutsa baino zerbait gehiago lortu nahi du. Guztiaren gainetik, jakintzaren baliabide da, edo izan behar du, diziplina arteko irizpide zientifikoen independentziatik egina.

Herrialde asko saiatu dira horrelakoak egiten, baina huts egin dute dela bitartekoetan, dela pertseberantzian dela metodoan. Mantsoa da eta urte askotako ahalegina eskatzen du. Arrakasta izateko nolabaiteko bemearekin ekiteko, ezinbestekoa da aurretik interpretazio eta balorazio-irizpide komun metodoa, mintzaira eta araudia sortzea. Besteak beste, Frantzian (Arkitekturaren Thesaurus), Estatu Batuetan (Paul Getty-ren Artearen eta Arkitekturaren Thesaurus –AAT–) eta Andaluzian (Ondare Historiko Andaluziarraren Thesaurus), lehenik thesaurus bat prestatu dute, tartean dauden diziplinen eta eragileen arteko analisietan mintzaira berbera erabiltzeko eta, haren bidez, jasotako informazioen objektibotasuna, koherentzia, iraunkortasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan lehen gabeziak bat da hori, eta inoiz ez da planteatu konpontzea, hori egiteko profesional trebaturik falta ez arren.

Inbentario orokor bat egiteko, funtsezko eskakizuna da inbentarioa egiteko erabilitako azterketa- eta analisi-irizpideek akademikoak izan behar dutela, eta balorazio-irizpideak esplizituak eta kontrastatzeko modukoak. Ondare eraikiari dagokionez, balorazio-irizpideek hauxe neurtu behar dute batez ere: proiektuaren eta eraikuntzaren kalitatea, adierazgarritasun tipologikoa edo asmamenaren berezitasuna, tipologiaren edo teknikaren alorreko antzintasun absolutua eta erlatiboa, identitate kulturalaren eta tipologikoaren ezaugarrien kontserbazio-egoera edo osotasuna eta esanahi historikoa. Balorazio-irizpide horiek dira, eskala desberdinean, UNESCOren Munduko Ondarearen Zentroak “benetakotasun-frogatzat” jotzen dituenak, eta horiek behar bezala aplikatzeak ondare-objektua babesteko, zaharberritzeko eta balioztatze erabaki erlatiboak era objektiboan orientatzen dituzten baliabide kontzeptualak ekarri beharko lituzke.

Kudeaketaren eraginkortasuna edo erraztasuna bultzatzeko direla uste dugun arrazoiak direla eta, ondare arkitektonikoa familia handitan sailkatu da; maila hauek daude horien barruan: erlijiosoa eta hilobietakoa, militarra, landatarra, bizilekuetakoa, zibila, herri-lanak, industria aurrekoa, industriakoa eta hirigintzakoa; era berean, horietako asko, gainera, garai historikoetan eta estilistikoetan banatzen dira. Hala ere, ondarearen familia horiei buruzko hausnarketa txiki bat eginda, agerian geratzen da sailkatu nahi horrek arazo larriak ekartzen dizkiola kultura-ondarearen interpretazio globalizatzaileari. Batetik, argi dago eraikin asko eremu baten baino gehiagoren barruan sar daitezkeela, edo historian zehar adskripzioz aldatu egin direla, eta, bestetik, sektorekako atomizazio horrek zaildu egiten du, zuzenean eragozten ez badu, benetako iraganaren ikuspegi osoa izatea; izan ere, horretan benetako analisi-unitatea paisaia da, eta hori mota desberdinekoak diren baina bata bestearekin azaltzen diren eraikinen elkarbizitzatik bakarrik uler daiteke. Gertaera hori nahiko nabarmena da hiri-multzoetan edo multzo tradizioaletan, esate baterako, dorretxe bat (jatorriz militarra, bizilekua eta, seguru asko, geroago landatarra), errota bat (landatarra, industria aurrekoa), eliza pribatu bat (erlijiosoa) eta baserriren bat (landatarra) biltzen dituenetan. Hala ere, EAEko Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean, elementu horiei tratamendu indibidualizatuegia ematen ari zaie, berezita, profesional desberdinek eta irizpide heterogeneoekin aztertzen ari dira.

2.1.3. Emaitzak eguneratzea.

Erregistro eta inbentario orokorren emaitzak eguneratzea bitarteko horien erabilgarritasunari kalte egiten dioten beste zailtasunetako bat da. Gaur egun, inbentarioa egin zen egunera mugatzen da informazio soziologikoaren aberastasuna, baina, era berean, une espezifiko horretako ondarearen eta historiaren pertzepzioaren ikuspuntuan ainguratuta geratzen da. Inbentarioa egunean izateko teknikoki gaitutako funtzionario-taldearen gabeziak eta lanaren tamainak hauxe ekartzen dute: berrikusketak (egiten direnean, eta horiek gutxi izaten dira) sektoreka egitea eta, ondorioz, konparaziozko desfaseak betikotzea.

Horrez gain, inbentarioaren mantentze-lanak gabezia larriak ditu ondare arkitektonikoaren elementuek izan berri dituzten aldaketan (bai hondatze-prozesuagatik, bai zaharberritzeko edo ordezkatzeko egindako esku-hartzeagatik) segimendua egiteko eta haiek biltzeko. Kasu honetan, hauen ondorio dira: inbentarioen kudeaketa zentralizatuegia dagoelako; ondarearen eremuan eskumena duten administrazioen arteko komunikazioa nahiko mugatua delako –horretarako informazioaren teknologia berriek aukera ederra eskaintzen duten arren, uzkur samar agertzen baitira eskura dituzten datuak guztien artean partekatzeko–, eta, oro har, etengabeko segimendua eta azterketa egiteko borondaterik ez dagoelako, eta, horrela, inbentarioaren izaera arautzailea nagusitzen da, benetako ezagutzako funtzioaren kaltetan.

2.2. Esku-hartzea eta zaharberritzea. Zenbait kontu

Testu honen beste puntu batean aipatzen denez, frankismoaren garaian eta trantsizioaren lehen urteetan, Ondare Eraikiaren kontserbazio-egoeraren eta zaharberritzearen ezaugarrietako bat erabateko *isolamendua* izan zen, ondare eraikiaren kontserbazioaren inguruko nazioarteko korronteeetako. Horrek, dudarik gabe, Espainiako ondarearen etorkizuna markatu zuen, eta haren normalizazioa denbora askoan egon da arriskuan. Gaia gehien ezagutzen duenetako batek egindako diagnosis oso gogorra da eta huraxe ekarriko dugu hona⁴ behin eta berriz ez errepikatzeko. Bakar-bakarrik erantsi behar dugu estatuko esparruari buruz ari denean bete-betean aplikatu daitekeela EAEra.

Trantsizio-urteetan gauzak ez ziren asko aldatu, eta gure ustez, hainbat administrazioetan (edo, hobeto esanda, horien arduradunak) ondarearen alderdi dokumentala kontuan hartzen ez duten inertzia kontzeptualetan daude geldituta oraindik ere, eta, gainera, *zaharberritze mimetikoak*, diziplinen arteko *deskoordinazioa* eta *inprobisazioa* ohiko dituzten esku-hartzeak bultzatzen dituzte.

“*Fatxadismoa*” eta *tipologia konstruktiboaren suntsitze sistematikoa* sarriegi gertatzen dira oraindik ere. Zaharberritzearen gaur egungo pertsona ospetsuenetako batek esandakoaren arabera, “gaur egun oraindik ere ohikoak diren jardunbide batzuen inguruan erabaki bat hartu behar da. Lehenik eta behin, fatxadismo delakoa dugu, “kontserbatu” eta berriro erabili nahi den eraikinaren barruko aldea suntsitzea eta fatxada bakarrik mantentzea (lege-aginduz edo zaharrari eraikin berriak emango dion ospeari etekina ateratzeko). Zaharberritzearekin zerikusirik ez duen jarduerak da (...), baina salatzea komeni da, geroz eta eraikin monumental gehiagorekin egiten baita hori”⁵.

Horrek guztiak, dudarik gabe, hemen aztertu ezin ditugun arrazoi-multzo konplexu batekin du zerikusia. Hala ere, horietako batzuk aipatuko ditugu. Lehenik eta behin, aipatu behar da zaharberritzeko jardueretan *batzuetan bakarrik, hala egokitzen zaienean*, parte hartzen duten profesional batzuen *prestakuntza eskasa*, ez baitute kontuan hartzen zaharberritze arkitektonikoa diziplina arteko esparru oso konplexua dela eta esperientzia eta jakintza espezifikokoak izatea ezinbestekoa dela. Prestakuntza teoriko eskas horrek gaur egun zaharberritzearen alorreko irizpideak kontuan hartuta ezegokitzat har daitezkeen joera batzuk sortu ditu. Horietako bi nabarmen dituzgun:

⁴ “La disfunción se produjo... sobre todo por diversos factores de carácter socio-económico, como la carencia de una mínima masa de profesionales preparados en restauración arquitectónica y urbana... las exigencias de nuevas sedes para la nueva administración surgida de la democracia que aspiró a ocupar edificios históricos, artísticos y patrimoniales abandonados o en desuso... y la libertad creativa de la arquitectura española que se refugió en el patrimonio para dar salida a un esfuerzo profesional que no tenía medios económicos suficientes en otras áreas de la construcción (crisis del petróleo)... Las primeras restauraciones de una amplia etapa de la ya instaurada democracia se hicieron ‘por urgencia’, en parte condicionadas por la ley del Suelo, por la Ley de Contratos del Estado y por otros mecanismos de contratación que sacaban a concurso u otorgaban libremente su realización ‘a dedo’ a determinados profesionales con la obligación de entregar sus proyectos de intervención y de conservación sin el mínimo tiempo preciso para una elaboración documentada y reflexionada. Sin medios económicos para realizar el ‘conocimiento’ necesario del edificio o el área urbana, sin los análisis precisos de la constatación de los nuevos materiales a aplicar, sin ni siquiera prever los posibles deterioros que la actuación conllevaría” (*Ibidem*).

A. GONZÁLEZ MORENO-NAVARRO, *La restauración objetiva (Método SCCM de restauración monumental*, Memoria Spal 1993-1998, 1, Diputació de Barcelona, Barcelona, 1999.

a) *Erabilgarritasunaren eta formaren irizpideen nagusitasuna. Berrerabileraren abusua.* Konbentzituta gaude –eta eguneroko jarduna hori erakusten ari da– EAEko ondare eraikiarekin lotutako profesional batzuek (arkeologoak, arkitektoak, zaharbertzaileak, etab.) eta arduradun batzuek ez dutela kontzientziarik, ez eta behar adinako trebakuntzarik ondare eraikiaren benetako izaeraren inguruan. Ondare hori, normalean, erabilgarritasunaren ikuspuntutik (horretan, funtzionaltasuna da irizpide bakarra) eta ikuspuntu idealistatik (formaren balioak eta balio arkitektonikoak gailendu egiten dira beste izaera batzuetako balioen aurrean) ikusten da. Sistematikoki ahazten da monumentu arkitektonikoak badituela errespetatu eta babestu behar diren beste balio batzuk.

Aurrekontuen arrazoizko erabilera, epeen administrazio zuhurra, behar sozialak eta antzeko argumentuen bidez, gure ondarearen aurkako benetako atentatuak justifikatu dira. “Hainbeste abusatu da azkenaldian berrerabileraz ezen, zaharbertzearen arazo nagusietako bat izatera iritsi dela. ICOMOS berak ere planteatu zuen, 1997-1999 hiruurtetarako lan- eta sentsibilizazio-kanpainaren ardatz gisa, gure monumentuen erabilera zentzuzkoaren aldarrikapena”⁶.

b) *Balio historikoekiko eta dokumentalekiko errespetu eskasa.* Nazioarteko foro askotatik aldarrikatu den legez, ondare eraikiak neurri berean ulertu eta baloratu beharreko funtsezko hiru alderdi ditu: *alderdi dokumentala, arkitektonikoa eta esanahiaren alderdia*⁷.

Garrantzi handiko kontua da; hala ere, horren inguruan ez da hausnarketa seriorik egiten. Zaharbertze-prozesua monumentu bat kontserbatzeko egindako eragiketa gisa ikusi beharra dago, baina baita *monumentu hori ezagutzeko aukera bakar eta errepikaezin gisa ere*. Bi premisa horiek bereiztezinak dira, txanpon bakarraren aurreko eta atzeko aldeak. Monumentu bat zaharbertutako bada, nahitaezkoa da hura ezagutzea. Ez da negoziatu daitekeen zerbait, ez eta arkitekto, sustatzaile edo administrazioaren sentsibilizazio handiago edo txikiagoaren mendeko ezer ere⁸.

Errealitateak, hala ere, beste aldera begiratzen du. Aurretik sistematikoki eta zorrotz egiten diren dokumentazio-prozesuak ezohikoak izaten dira. Euskarri dokumental eta analitiko eskasarekin (edo batere gabe) egiten diren esku-hartzeak, berriz, ohikoak dira. Ez dago esku-hartzeen inguruko protokolo bateraturik. Bestetik boluntarismoa eta inprobisazioa nagusi dira. Arazo larria dugu hemen eta guztion artean aurkitu beharko dugu konponbidea.

⁶ *Ibidem*, or. 66-67).

⁷ De todas ellas es la dimensión documental la condición primigenia del monumento porque el análisis de su materialidad suministra una inestimable información “sobre el arte, la arquitectura, la construcción y la técnica del pasado, y también sobre su propia historia y la de las colectividades con él relacionadas, o sobre sistemas productivos, hábitos residenciales, mentalidades sociales o, en fin, sobre la historia del país o del lugar donde se erigió” (*Ibidem*, 13. or.).

⁸ Cfr., honi buruz, A. AZKARATE, Intereses cognoscitivos y praxis social en Arqueología de la Arquitectura, *Arqueología de la Arquitectura*, I, Euskal Herriko Unibertsitatea-Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Gasteiz, 2002.

3. Ondarearen balioztatzea eta sozializazioa

Ondare arkitektonikoaren eremuko esku-hartze publikoak haxe izan behar du helburu: ondarearen jabetza juridikoa kontuan hartu gabe, interes publiko unibertsala duten ondare-multzoaren sozializazioa bultzatzea. Ondarearen katalogazioa, azterketa, babeseta eta berreskuratzea aurreko faseak edo helburu instrumentalak besterik ez dira, gizarteak –oraingoak eta etorkizunekoak– ondare horiez materialki eta intelektualki haien balio guztian goza dezan bermatzeko.

Ondarearen sozializazioa lortzeko bideak esperientzia fisikora sartzeko eta horiek ezagutzeko aukera ematen duten horiek dira. Horregatik, agintari publikoen zeregina beharrezkoak diren mekanismoak garatzea da, ondarearen kontserbazio egokia bermatu ondoren, ondare hori balioztatua izateko aukera egon dadin eta gizarte osatzen duten guztiek (ondarezko elementuak hartzen dituzten gertuko komunitateetatik hasita, hezkuntza-sisteman ari diren gazteekin segituta eta, azkenik, hedapen-mekanismoen bidez zeharka eta turismo kulturalaren barruko ekipamenduak eta baliabideak hartzen dituzten esperientzia-aukera ugariaren bidez zuzenean sartzeko den publiko unibertsalarekin amaituta) jakintza horretara sartzeko aukera izan dezaten.

3.1. Ondarera iristeko mugak.

Gizarte geroz eta ahalegin handiagoa ari da egiten ondare eraikia berreskuratzeko lanetan, eta, esku-hartze horien inguruan gizartearen onarpen-maila handia lortzen ari da; baina ahalegin horri eusteko edo areagotzeko, ezinbestekoa da inbertsio horiei etekina ateratzea. Ondare arkitektonikoaren gastu sozialaren lehen onura da ondare horretaz gozatzeko aukera ematen dela. Baina identifikatzea ez da nahikoa, benetan kontaktua izatea eta ondarea ezagutzea bermatzeko. Ezinbestekoa da horiek etengabe hedatzeko politika aktibatzea eta informazio publikorako tresna-multzo oso bat sortzea, argitalpen-sorta zabala eta Interneten erreferentzia izango den gune sendoa izango dituen; gaur egun, ezin uler badaiteke ere, ez dago horrelakorik.

Ondare arkitektonikora bertara joatea, kasu gehienetan, oztopo-lasterketa bat da, eta lehenik eta behin, eraikinerira iristeko lokalizazio-seinale akastuna (heterogenenak, urria eta nahasia) gainditu behar izaten da; gainera, hara iritsi eta gehiegizko diseinua duen identifikazio-plaka bat egoten da askotan, ondarea inbaditzen duena, askotan oso azaleko edukia edo eduki okerra duena, eta euskarriaren materiala ere ezegokia izan ohi da (berria izan arren, ez duela gehiegi iraungo erakusten duena). Disuazio-oztopo horiek izan arren ondare eraikira sartzeko erabakitzen duenak, ordea, sartzeko debekatuta dagoen leku ugari aurkituko ditu berriro ere, eta, kasu gehienetan, ez du horiei buruzko informaziorik izango. Adibidez, beti harritu izan gaitu kontraste honek: zein zaila den herri katoliko honetan eliza bat bisitatzeko baimena lortzea eta zein gogobetegarria den Frantzia laikoan tenpluetako ateak beti irekita izatea.

3.2. Ondarea hezkuntzaren esparruan.

Kultura-ondarea sozializatzeko epe ertaineko helburuak emaitza hobekak lortuko ditu, haren hasierako jarduerak hezkuntza-sistematik planteatzen bada. Ondarera iristea irakaskuntzatik bertatik bultzatzeak diziplina arteko (nahi izanez gero, zeharka) jakintza-emari handia ekartzeaz gain, heziketari dagokionez aparteko garrantzia duten balio soziokultural multzoa ekarriko du. Hori dela eta, ziurtasunik gabeko oraina duen eta etorkizuna berehala atzeman nahi duen mundu honetan, ondareak, memoria bermatu ez ezik, identitate-bereizgarritzat onartutako ezaugarriek ere irautea bermatzen du.

Gizartearen kultura-ondarea definitzeko erabiltzen diren gutxi gorabeherako erabaki esplizitoen multzoari buruzko hausnarketa paradigma egokia izan daiteke, hain zuzen ere, kontsumo azkarra, moda iragankorra eta berrikuntzaren gorespena ezaugarri dituen denboran, bai indibidualki bai kolektiboki mantentzeko eta gordetzeko baliozkotzat jotzen denaren paradigma. Herrien eta gizabanakoen nortasuna berek atxiki nahi duten kulturaren hautu etengabea da, eta horren froga da ondarea. Halaber frogatzen du ondareak haien identitatea kultura-eredu orokorragoetik elkarrekintza jarraituan eraiki dela sozialki eta historikoki. Errealitatea murrizten duten ikuspegi aurrez aurre (esentzialistak eta historiari gabeak), ondarearen interpretazio globala dago, zeinak ordaindu ezinezko laguntza eman baitieziaieke etorkizuneko belaunaldiei haien hiriko erabakiak hartzeari dagokionez.

Ondarea, araei dagokienez behintzat, hezkuntzaren esparruan sartu da, lehen eta bigarren etapetako helburu orokorretan, eta, horietan nabarmendu egiten da "ondare kulturala ezagutzearen, estimatzearen eta hartaz gozatzearen garrantzia eta hura gordetzeko eta hobetzeko aktiboki aritzearen" garrantzia. Halaber, DBHko gizarte-zientzien alorreko helburu nagusietan ikasleek hau ikastea lortzeko beharra ere nabarmentzen da: "ondare natural, kultural, linguistiko, artistiko-historiko eta soziala baloratzen eta errespetatzen ikastea, hori kontserbatzea eta hobetzea nor bere gain hartuta, gozatze bidez onartuta eta garapen indibidual eta sozialerako baliabide gisa erabilita". Hala ere, egia da eduki horiek kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukietan zehaztea muga askorekin egiten ari dela; izan ere, oraindik asko eragiten diete artearen historia akademizistaren eskema tradizionalaren zurruntasunak eta, gainera, gaitasun txikia dute haien diskurtsoa benetako ondarean sartzeko, berehala eta kultura-komplexutasun guztiarekin. Argi ikusten da laguntzarako materialen, baliabideen eta orientabide zuzenen gabeziak eta, horrekin batera, irakasleek ondarearen hermeneutikan duten trebakuntza eskasak atzeratu egin dituztela alor honetako aurrerapenak.

3.3. Ondare eraikia baliabide sozioekonomiko eta turismo kultural gisa.

Ondare arkitektonikoaren pertzepzio berriari eragiten dion azkenaldiko joera sozialetako bat da haren potentzial ekonomikoa eta, bereziki, turismo kulturalerako funtsezko baliabide izatearen ezaugarria onartzea. Duela bi hamarkada lotsa eragingo luketen kontzeptuak, esate baterako, ondarearen errentagarritasuna aipatzea, gaur egun, gizartearen garapen orekatu eta jasangarria bilatzera orientatuta dagoen eskualdeko politikaren plangintzaren funtsezko ardatzak dira, baita ondarean baliabideak inbertitzeko legitimazio sozialaren oinarriak ere.

Turismoa XVIII. mendean sortu zenetik ondare arkitektoniko eta artistikora lotuta egon bada ere (garai hartan Italiako monumentuak eta hondakinak ikusteko *Itzuli handia* egitea funtsezkoa zen Britainia Handiko gazte aristokratentzat), XX. mendeko laurogeiko hamarkadara arte turismo kulturala ez da hartu aisialdiko turismotik bereizitako sektore gisa. Gaur egun, munduko bidaien % 37 arrazoi kulturalengatik egiten dela jotzen da, eta, horietatik, espresuki bisita historikoetara eta ondarea bisitatzera bideratuta daudenen kopurua % 30 - 50 bitartean kokatu izan da azken hamarkadan. Zuzenean ondarearen sozializazioari eragiten dion izugarritzko igoera horren arrazoiak zuzenki daude lotuta mendebaldeko gizartearen kultura-maila igotzearekin, biztanleria zahartuagatik intelektualki aktibo izatearekin eta emakumeak protagonismo ekonomiko handiagoa izatearekin, gizonak baino kultura-jarduera gehiago kontsumitzen baitu.

Beste bidaiari-mota batzuekin alderatuta, turista kulturalaren ezaugarri soziologikoa da jakintzaren biltzaile generiko dela, erosteko ahalmen ertaina duena, nahiko prestakuntza duena eta ibilaldia hasi aurretik informazioa jasota duena. Etengabe hazten ari den sektore bateko kide da, objektu fetixen ordez esperientziak bilatzen dituena, balio gisa benetakotasuna aurkitu nahi duena eta ez artifiziala eta artifiziosoa dena, eta geroz eta konprometituago dagoena inguru natural eta arkitektoniko orekatua zaintzearekin; era berean, kontziente da jasangarritasun horri egiten dion ekarpenaz. Talde horientzat, ondare arkitektonikoaren sozializazioaz gozatu ahal izatea funtsezko eskakizuna da haien bidaietarako, eta bidaia horiek ihes egiteko ekimen izatetik norberaren aberastasunerako jarduera gisa hartu dira. Herrialde garatuetako joera soziologikoak iritzi berekoak dira horren inguruan, eta gaur egun argi eta garbi onartzen da aisialdi ez aktiboa joera lotsakortzat jotzen hasi dela eta esperientzia kulturalak, eta bereziki ondarea aurkitzearekin lotuta daudenek, onarpen sozial altua dutela.

Turista kulturala erakartzeko lehia mundu mailan egiten da, eta, horretan, Euskal Autonomia Erkidegoa, monumentu handien munduko merkatuan eskaintzeko gauza asko ez zituena, konturatzen hasi da erdi mailako ondare-baliabide asko duela; ondare hori zabala eta askotarikoa izanagatik, oso ongi integratuta dago eta gai da baita eskaeraren segmentu zorrotzenak ere asebetetzeko. Alabaina, ahultasun bat badu: baliabide horietako askok ez duela informazio publikorik, zailak direla lokalizatzen, ez dela erraza horietara iristea, ez daudela ongi kontserbatuta, ez direla ia kudeatzen, sektore profesional espezializatuaren babesik ez dutela eta ez dutela tokiko agintarien eta bizilagunen estimua –eta batzuetan onarpena– sortzen.

3. PROPOSAMENAK

3.1. OrokorraK

3.1.1. Kultura-ondarearen sektorean I+Gren politikak sustatzea

Orain dela gutxi arte, zaharberritze-lanei zuzenean ekiten zitzairen, aurrez eraikinak izan zitzakeen arazoak diagnostikatuko lituzkeen eta, ondorioz, egoera bakoitzerako metodo, tresna eta bitarteko egokienak antolatzeke aukera emango luketen azterketarik egin gabe. Prozesu horrek eragin dituen hondamenak ezin kontatuzkoak dira eta, zoritxarrez, atzeraezinak.

Gaur egun, zorionez, jarduteko modu hori asko kritikatzten ari dira erakunde askotatik, eta, pixkanaka, metodologia zientifikoagoa eta monumentuak gehiago errespetatzen dituen nagusitzen ari da. Hala ere, hori guztia aspalditik oinordetzan hartutako oztopo batzuekin batera gertatzen ari da, esate baterako, lehen aipatutako prestakuntza eskasa edo azaltzen ari den defizit teknologikoa.

Horregatik, ikerketa eta garapen teknologikoa Europako Batasuneko jarduera-esparru nagusietako bat bilakatu da. I+G Esparru Programak, ildo horretatik, enpresen, unibertsitateen, ikerketa-zentroen eta Europako ondarearen erakunde kudeatzaileen arteko lankidetzak zientifiko eta teknologikoko politikaren bitarteko bilakatu dira. Horren inguruan nabarmendu behar da, adibidez, Kultura Ondarearen gaiak lehentasuna izan zuela V. Esparru Programan. Horrez gain, ez da ahaztu behar herrialde batzuk (adibidez, Italia) I+Gri ematen ari zaizkion bultzada ausarta.

Gainera, ez da ahaztu behar turismoaren eta ondarearen arteko lotura etengabe areagotzen ari dela. Gaur egun turismoa munduko industria handiena izatera iritsi bada, argi dago ez dela nolanhikoa ondareak ikuspuntu ekonomikotik lor dezakeen garrantzia.

Ondarearen alorrean EAEn egindako oinarritzko ikerketa, batez ere, Euskal Herriko Unibertsitateak egin du. Unibertsitate horretan alor horretan diharduten hainbat talde daude, nahiz eta ikerketa aplikatua ere ari diren. Bada, hain zuzen, “arkitekturaren arkeologia” alorrean aritzen den ikerketa-talde bat, diziplina-aniztasunetik espezifikoki ondare eraikira bideratuta dagoena. Ikerketa aplikatuaren esparruan, INASMET eta LABEIN Zentro Teknologikoak aipatu behar dira bereziki.

Hiru erakunde horiek “Ondare higiezinaren kontserbazioari” buruzko ikerketa estrategikoko programa bat proposatu zuten, eta, onartu eta, Ikerketa Estrategikoko Programen barruan, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Planeko zati izatera pasatu bazen ere, oraindik ez du lortu behar adina finantzazio gauzatu ahal izateko⁹.

3.2. Inbentarioa eta katalogazioa

3.2.1. Gizartearen adostasuna lortzea eta trebakuntza profesionala hobetzea.

Ezinbestekoa da ondare kulturalaren esanahiari buruzko adostasun soziala bultzatzea, baina, horretarako, ezinbestekoa da orientabide argia eskaintzea horiek baloratzeko irizpideei buruz eta horien ahalmenei buruz. Orientazio horrek administrazioetik eta ondarearen katean parte hartzen duten profesioetatik atera behar du, horiek hobetu beharko baitute gaur egungo ahalmen teknikoa, jakintzatik, “monumentua” interesa eragiten duen objektu bakartzat jotzen duten ideietan oinarritutako gaur egungo aurreiritziak gainditzeko. Ondarearen balio berriak hedatzeko lana osatu egin behar da administrazio kualifikatuagoarekin, ondare arkitektonikoaren kontserbazioaren segimendu- eta kontrol-lan kualifikatuagoarekin eta horien aurkako erasoak zigortzearekin.

3.2.2. Behin-behineko inbentarioaren eraginkortasuna.

Gabeziak eta hutsuneak izanda ere, behin-behineko inbentarioak ondare arkitektonikoaren erreferentzia kontzeptualaren lurraldea mugatzeko balio izan du. Hala ere, ondare juridikoki eraginkorra babesteko tresna gisa transformatzeko prozesua gehiegi luzatu da, eta, gaur egun, desorientazio publikoa sortzen du elementu positiboak baino gehiago. Dударik gabe, edukiak berrikusi eta eguneratu egin behar dira, baina, milaka eraikin babesik gabe dauzkagula denborak aurrera egin baino lehen, lege-erreforma egiteko aukera aztertu beharko litzateke, indar loteslea eman diezaion. Atzerapenen eta legezko hutsuneen ondorioz, badaude orain dela hogeita bost urte inbentario aurreko batean sartutako (hasiera batean foru-aldundiek eta gerora Eusko Jaurlaritzak) eraikinak, babes juridikorik ez dutenak, eta, behin-behinekotasun horren ondorioz, jabeek edo sustatzaileek aurri fisiko edo ekonomikoaren espedienteak bizkortu egiten dituzte.

⁹ “Ondare Higiezinaren Kontserbazioari” buruzko Ikerketa Estrategikoko Programa bi proiektu nagusitan (diagnosiaren eta esku-hartzearen alorrak) eta zenbait azpiproiektutan banatzen da, eta horiekin hainbat helburu lortu nahi dira: a) Helburu zientifiko-teknologikoak (Ondare Kultural Higiezinan esku hartzeko eta diagnostikoa egiteko lan-ereduak prestatzea, Administrazioak eta arkitektoek esku hartzeko protokolo adostuak izan dituztenak); b) Enpresen helburuak (Ondare Kultural Higiezinaren kontserbazio-egoeraren diagnostika egiteko metodologia berriak entsegu-laborategien esku jartzea, proiektua idatzi aurreko azterketak gauzatzeko eta materialen kontrolerako eta exekuziorako entseguak egiteko, lan-zuzendaritza babesteko era gisa); Helburu sozialak (Zaharberritze-lanen kalitatea eta eraginkortasuna areagotzea, horrela, beraz, EAEko Kultura Ondare Higiezinaren kontserbazio-egoera onena bermatzeko).

Gaur egun “balizko arkeologia” izenez esaten zaionaren analogiaz, “balizko ondarezkotzat” jotzen diren baina espediente indibidualik osaturik ez duten eraikinen babes generikoko estaldura bat zabalitzea izango litzateke egokiena, esku hartzeko edozein ekimenen aurrean berrius daitekeena. Indarrean dagoen araudia aldatuta eta malgutasunez jokatuta gaur jaso diren higiezin inbentario aurrekoan sartu izana ofizioz edo alderdiak hala eskaturik berrikusteko irizpideei dagokienez, jakintza zabalitzea eta ondarea eraginkortasunez babestea lortzeko litzateke. Hala ere, gogorarazi behar da inbentarioak gizartearen aurrean baduela balio pedagogikoa eta ereduakoa ere, eta inbentario horretan ez direla onartu behar bidezidor diskriminatzaileak. Eraikin baliotsuren bat mehatxuetatik babesteko premia justifikatu nahi bada ere, komeni da eraikinei gehiegizko kategoriarik ez ematea berehalako babesa lortzeko, azken urteotan egin den bezala.

3.2.3. Inbentario orokorra: zientifikoa, globala eta esplizitua.

Inbentario orokorra egiten aurrera segitzea lehenetsuzko apustua da eraikinen babes eta balioztate koherentea lortzeko. Horien analisirako irizpideek zientifikoak eta diziplina artekoak izan behar dute nahitaez, eta diziplina guztien ekarpenak, balioak eta mintzaira partekatu behar dira (horretarako, oso lagungarria izango litzateke Thesaurus bat sortzea edo inportatzea eta egokitzea). Inbentarioak gehiegizko sektorializazio tipologiko eta kronologikoaren eragin kaltegarriak arintzeko balio behar du, eraikinen eta inguru historiko, natural eta eraiki aldakorren arteko harremanak kontuan hartuko dituen interpretazio integratu eta globalaren mesedetan. Balorazio-irizpideek esplizituak eta kontrastatzeko modukoak izan behar dute.

3.2.4. Inbentarioak eta katalogoak etengabe eguneratzea.

Inbentario orokorra instrumentu bizi (ekarpen teorikoak eraikinen inguruko ezagutzara eta balorazioa gehitzeko gai eta haren transformazioen segimendu iraunkorrari eusteko gai dena) bihurtzean bakarrik izango da benetan eraginkorra ondare arkitektonikoa kudeatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da etengabeko eta diziplina arteko ikerketa sustatzea eta babestea, etengabe eraikinak ikuskatu eta segimenduak egitea eta, dudarik gabe, ondarearen kudeaketan eta zaintzan inplikaturako erakunde administratiboaren arteko komunikazio deszentralizatua eta elkarrekikoa hobetzea. Horrez gain, oso baliagarria izango litzateke inbentarioaren jakintza globala publikoaren eskueran jartzea, ahal izanez gero, hedabide malguen eta demokratikoen bidez, adibidez, Interneten bidez.

3.3. Esku-hartzea eta zaharberritzea

3.3.1. Zaharberritzea jakintza-prozesu gisa ulertzea

Hauxe da ondare arkitektonikoaren kontserbazioaren esparruan egin daitezkeen hobekuntzen abiapuntua eta funtsezko zutabeetako bat.

Artearen historiarentzat eta arkitekturarentzat eraikinak izen handiko ikonoak dira eta prerromaniko, erromaniko, gotiko edo barroko adjektiboaren bidez kalifikatu ohi ditu; gure ustez, ordea, prozesu historiko konplexu baten azken emaitza gisa ulertu behar dira. Krakovia Gutuna (2000) esplizitua da horri dagokionez. Batetik, gutunaren hitzurrean gure ondareko edozein elementu indibidualetan dagoen balio-ugaritasuna aipatzen da, belaunaldiz belaunaldi jaso diren balioak eta, beraz, denboran alda daitezkeenak. Bestetik, ukatu egiten du (hori ere hitzurrean), esandakoarekin bat, ondareko elementu bat era egonkor eta adiera bakarrean ikustea, zeren eta, normalean, osotasunean baloratu beharreko zenbait une historikoren emaitza izaten da (1. eta 6. puntuak), gaur egun garrantzi gutxiko zatiak izan arren (nahiz eta agian garrantzizkoak izan etorkizunean). Horregatik guztiagatik, zaharberritzeko edozein proiektuk *eraikina edo gune sakon ezagutzea eskatzen duen prozesu kognitibo bat izan behar du* (3. eta 5. puntuak).

Aldez aurretiko jakintza hori agindu deontologiko bat da eta administrazioak exijitu egin behar du hori betetzea¹⁰.

3.3.2. Ondare Eraikiaren balio integralak gehiago errespetatzea

Idatzizko dokumentu zahar bat inori bere nahierara aldatzen utziko ez geniokeen bezala, ez litzateke utzi beharko erakin historiko batean esku hartzen, aurretik eraikin horrek duen informazio guztia deskodetu gabe; izan ere, eraikin historiko bat, funtzionaltasun jakin bat duen edukitzaile izateaz gain, denborarekin, nahitaezko tresna hermeneutikoekin irakurri beharreko **dokumentu** bilakatzen da. Tresna horiek dira administrazio arduradunak gutxienez arautu beharrekoak.

Ondare eraikiaren balio dokumentalekiko (memoria historikoarekiko) errespetua betidanik izan da zaharberitzearen historiaren oinarritzko ideietako bat. Egin berri duten Krakoviako Gutunak berriro aldarrikatu du haren garrantzia eta balio arkitektonikoeak eta monumentuen formazko balioekiko parekotasuna. Beraz, parekotasun hori eta eraikinaren balio integralekiko errespetua eskatu behar dira zaharberitzerakoan.

Hala ere, beharrezkoa den parekatze hori praktikan ez da gertatzen, eta legeetan ere ez da behar bezala islatzen. Hori dela eta, desiragarria izango litzateke EAeko Ondare Kulturalaren Lurraldeko Plan Sektorialaren aurrerapenean –alderdi askotan, ereduzkoa– balorazio-irizpide orokorren artean ezartzen duen eta “oinarrizkotzat” (balio arkitektonikoak) jotzen direnak “nagusien” (balio historikoak, bereziak eta ereduzkoak) aurrean lehenesten¹¹ dituen harremana zuzentzea, ondare eraikietan esku hartzeko gaur egindako proposamen serioenak eskatzen duten oreka bilatzeko.

3.3.3. Esku hartzeko irizpide batzuk egokitzea eta hobetzea. Hobe daitezkeen testua: 214/1996 Dekretua

Ondare Urbanizatua eta Eraikia birgaitzeko jarduerak babesteari buruzko uztailaren 30eko 214/1996 Dekretuan eta, bereziki, I. eranskinean (Zaharberitzeko jarduerak) zenbait definizio aipatzen dira eta argi eta garbi hobe daitezkeen jarduera-moduak eta teknikak zehazten dira.

- “Zaharberitze zientifikoa” delakoa aipatzen da, eta honelaxe definitzen da: “eraikin edo instalazio batean, edo horien lursail eraiki gabeetan, egiten den eraikuntza-jarduera, eraikinaren balio arkitektoniko espezifikoaren eraginarengatik hiri-sarean garrantzi handia duena, eraikinaren ezaugarriak gordetzea eta balioa ematea helburu duena, baina,aldi berean, eraikinaren barnean, aipatutako balioentzat egokiak diren erabilera edo erabilerak gauzatzeko aukera ematen duena”.

¹⁰ Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondarearen Lurraldeko Plan Sektorialak kontuan hartzen du behar hau eta alternatiba jakin batzuk eskaintzen ditu, dokumentu hau espainiar estatuko antzeko araudiekiko aitzindari bihurtzen duten alternatibak hain zuzen ere. Hala ere, berriro ere, uste dugu. Azterketa Analitikoak (osoak edo sinplifikatuak) izenekoaren inguruan egindako proposamenak hobe daitezkeela

¹¹ “La valoración se efectuará de manera objetiva y considerando *en primer lugar los valores más notorios* del bien, añadiendo luego los valores menos presentes. Se aplicarán **primero** los criterios básicos, **luego** los principales y, **finalmente**, los correctores”. (PTS, 170. or.).

Arkitekturaren balio dokumentalak eta adierazgarriak kontuan hartzen ez dituen (aipatu behintzat ez ditu aipatzen) definizio horren oinarri utilitarista kezkarria da, zaharberritzeko jardueran proposatuko diren baliabide kontzeptualak eta operatiboak artikulatzean izango dituen ondorioengatik. Baina, gai hori aurrerago aztertzeko utzita, “zaharberritze zientifikoa” delakoaren barruan legeak uzten dituen eraikuntza-jardueretan zentratuko gara oraingoan:

+ Aukera hauxe ematen du: “itxura arkitektonikoa zaharberritzea eta aldatutako *zatiak jatorrizko egoerara* leheneratzea, honen bidez (...): eroritako edo botatako eraikinaren zati baten edo batzuen *berreraikitze* filologikoaren bidez (...); eraikitako unitatea osatzen duten zatiak (adibidez, patioak, klaustroak, plazak, baratzeak edo lorategiak) *jatorrizko egoerara leheneratzearen* bidez”.

+ Halaber, aukera hau ere ematen du: “erakinaren, eraikin-unitatearen edo inguruaren jatorrizko ezaugarri arkitektonikoekin kontraste negatiboa sortzen duten edo interesik ez duten berriki *erantsitako* edozein degradatzaile edo lan *ezabatzea*”¹².

Badirudi testuak ez dituela kontuan hartzen kontserbazioaren eta zaharberritzearen nazioarteko eztabaidak eta, batez ere, erabat urruntzen dela *2000ko Krakoviako Gutunaren* espiritutik, hark zehatz eta dudarik gabe gogorarazten baitu “*eraikinaren estiloan zaharberritzea galarazi behar dela*”. Eta are urrunago doa, hauxe adierazita: “zati oso mugatuak zaharberritzea (...) **salbuespen gisa** onar daiteke, baldin eta dokumentazio zehatz eta eztabaidea zinetan oinarrituta badago”.

Gai honetako alderik kezkarriena da oraindik onartu gabe dagoen EAEko Kultura Ondarearen Lurraldeko Plan Sektorialean literalki jasotzen dela legeria hori: “LPS horretarako, eraikuntzetan, eraikinetan eta urbanizazioko elementuetan eta horien higigarrietan eraikitzeko eta urbanizatzeko egin daitezkeen esku-hartzeak Zaharberritzeko jardura babestuei buruzko 214/1996 Dekretuaren 1. eranskinean daude definituta” (LPS, 182. or.).

4. Hedapena eta sozializazioa

Aurreko ataletan aipatu denez, hutsune ugari detektatu dira ondare arkitektonikoaren sozializazioaren esparruan, eta, ondorioz, hobekuntzak edo neurri zuzentzaileak beharrezko dituzten jarduerak asko dira, ondarea benetan guztiontzako interes publikoko ondasun-multzo bilaka dadin.

- a. Ezinbestekoa da ondare eraikiaren jakintza eta esperientzia zabaltzeko mekanismoak hobetzea, zenbait gairen inguruko eta jende-mota desberdinentzako argitalpenekin, Interneten guneak sortuta eta hezkuntza-programen bidez.
- b. Ezinbestekoa da ondarezko eraikinetara sartzeko bideak eraginkortasunez bermatzea, behar adina seinale jarrita; seinale horiek homogeenak eta, batez ere, eduki aldetik zehatzak eta aberatsak izan behar dute.
- c. Hezkuntzaren esparruan, ondarea ezagutarazteko bide eraginkorrak babesteko aukera eta baliabideak sortu beharko lirakeke, irakasleei orientabidea eta trebakuntza osagarria emanda.
- d. Ondarezko elementuei buruzko ikerketa zientifikoa diziplina-aniztasunetik bultzatzea ezinbestekoa izango da, hartara, ezagutza-multzo sakon, kritiko eta sozialki erabilgarria izateko.
- e. Eta, azkenik, atzerazina da azaleratzen ari den turismo kulturalaren bolada bultzatzeko eta, era berean, orientatzeko politikak planifikatzea, turismo horrek, aldi berean ondarearen benetakotasuna babesteko eta ondarearen gordailu diren komunitateen garapenari, haien identitateari kalterik egin gabe, laguntzeko balio dezan.

¹² Guk jarri ditugu hitz horiek letra etzanarekin. Egin daitezkeen esku-hartzeen ranking-ean maila gorenerako onartutako irizpideak hauek badira, erraz imajina daiteke maila baxuagoko beste esku-hartzeen edukia; handitik txikira, honela daude definituta: “Zaharberritze kontserbatzailea” (A, B, eta C kategoriak), “Kontserbazioa eta apaingarriak”, “Finkatzea”, “Zaharberritzea”, “Berreraikitzea”, “Ordezkatzea” eta “Botatzea”.

4. XX. MENDEKO ONDARE ARKITEKTONIKOA

Europako Ondare Arkitektonikoaren ministro arduradunen 2. Konferentzia Granadan egin zen 1985ean, eta, bat egin zuen taldeek eta norbanakoek azaleratzen ari ziren ondare berriekiko sentsibilizazioarekin; ondare horien artean, babestu beharreko esparru espezifiko gisa, besteak beste, hauek aipatzen ziren: tokian tokiko arkitektura, nekazaritza-arkitektura, arkitektura teknikoa eta industrialia eta XIX. eta XX. mendeetako arkitektura, horien guztien inguruarekin batera.

Azken horri dagokionez, Europako Kontseiluak gomendio bat atera zuen 1991n, XX. mendeko arkitektura babestearen ingurukoa. Gomendio horretan, alor horretan 1979. urtetik Europan gauzatutako ekimen ugari jasotzen da; gure lurraldea, ondare garaikidean hain aberatsa dena, nahiko atzeratuta dago ekimen horiekiko gertuko politikekin alderatuta.

XX. mendeko arkitektura ondare historikoaren zati bat da, eta horren elementu garrantzitsuak gordetzeak eta horiei balioa emateak ondare arkitektoniko osoaren kontserbaziorako ezarritako helburu eta printzipio berberei erantzun behar diete.

Ondare arkitektonikoaren beste osagai batzuekin alderatuta, ondarearen kategoria hori, gertutasun historikoarengatik, testigantza ugari dagoelako eta izaera heterogeneoarengatik, ez dago hain onartuta, ez ardura duten agintarien artean, ez jendearen artean.

Kontserbatzeko interes faltak galera konponezinetara eramán gaitu, eta, gure hiri eta herri askotan eraikin garrantzitsuak desagertzeaz gain, horiek sortu zituzten dokumentazio-iturriak ere desagertu egin dira, esate baterako, diseinuak, planoak, maketak, argazki-plakak, etab.

4.1. Sortzen ari den ondarearen hauskortasuna

Badakigu garai hurbilenetako ondarea baloratzea **horiek onartzeko zailtasunen** isla diren kondizio espezifiko batzuen menpe dagoela:

-Ondarea baloratzeko arrazoibide ugari dago, eta kasu askotan eraikin horiek baloratzeko irizpide argi bat falta da, baita profesionalen artean ere.

-Irudi mediatikoak kasu askotan eraikinak baloratzeko definizio gisa balio du, are gehiago gaur egun, eta, denbora pasatu ahala, edo sendotu egingo da ikuspegi arkitektonikoaren barnean edota ez da legitimotzat hartuko.

-Adostasun soziala, ahalegin ekonomikoa, interes politikoa eta jarduera arkitektoniko jakin batzuen lan bereziak segituan berrets dezake duela gutxiko arkitekturen ondarezko izaera.

-Eraikin garaikide batzuetan material merkeagoak erabiltzeak haiek azkar zahartzea ekarri du; horren ondorioz, eraikin modernoek hasieran zuten itxura ederra galdu egiten dute pixkanaka eta eraiki ziren unean izan zuten berritasuna eta garrantzia ahaztu egiten dira.

-Industriaren ondorengo gure gizarte modernoak maila guztietan dituen gaitasun transformatzaileak nekazaritzako eta hiriko paisaia eta paisaia metropolitarrak maiz eta bizkor aldarazten ditu, eta, horrela, zenbait kasutan, inguruaren degradazioa eragiten du, ikus daitekeen poluzioa, batzuetan atzeratzeak diren ondorio fisikoekin. Hori dela eta, eta inolako irizpide garbirik gabe, duela gutxiko ondarea da gutxien baloratzen dena eta entzutea lehenengo galtzen duena, eta, ondorioz, desagertu egiten da.

-Gaur egun, eraikinen bizialdia, pertsonena bezala, luzatu egin da, eta, geroz eta sarriago gertatzen da bi biziko prozesua, bereziki ondare garaikidean; prozesu horretan, eraikinaren jatorrizko zeregina erabat aldatu eta beste zerbaitetarako erabiltzen da. Dokumentu-ondareak eta eraikinaren azterketak eta balorazioak legitimitatea eman edo kendu egin diezaioke esku-hartze horri.

-Ez dugu dokumentu-ondare arkitektoniko eta urbanistiko garaikideei buruzko lege espezifikorik. Dokumentu horiek, zehatzak izanda ere, ez dira balorazio bereziko objektutzat jotzen dokumentazioaren barruan, eta leku desegokietan jartzen dira eta denborarekin horietako asko galdu egiten dira. Arkitektura ulertzeko hain lagungarriak diren artisauek –adibidez, maketagileak– ere desagertzen ari dira pixkanaka, enkargu faltarengatik.

-Ez dago lan espezializaturik edo doktore-tesirik arkitektura-mota horren inguruan gure unibertsitatean, eta alderdi hori sendotu egin beharko litzateke.

4.2. Ondare hori nazioartean legitimatzea. Arkitekturako artxiboen eta museoen sorrera.

Gaur egungo gizarte anitz eta aldakorrean, irudia gure kulturaren funtsezko elementu bilakatu den eta etengabe mugitzen ari den mundu honetan, XIX eta XX. mendeetako ondare arkitektonikoa presio indartsu baten menpe dago eta zaila da legitimazioa bilatzea.

Arazo horren aurrean, hainbat herrialdek XIX eta XX. mendeetako Arkitekturaren Museoak eta Artxiboak sortzea **erabaki dute**, ondare ahul hori gerora baloratzeko. 1979an Helsinkin ICAM (International Confederation of Architectural Museum) sortu zenetik, nazioarteko erakunde asko arduratu dira ondare arkitektoniko garaikide eta aberats hori kokatzeaz, antolatzeaz, babesteaz eta hedatzeaz, eta, gaur egun, munduko 200 erakunde baino gehiago ari dira lanean azaleratzen ari den ondare berri hori baloratzeko; Arkitekturaren Frantziako Institutua (Paris), Arkitekturaren Alemaniako Museoa (Frankfurt), Arkitekturaren Herbehereetako Institutua (Róterdam), Arkitekturaren Kanadako Zentroa (Montreal)... sortu berriak diren herrialde batzuek ere –adibidez, Lituaniak– mota horretako zentroak dituzte, eta irtenbide juridiko, zientifiko eta ekonomiko ugari ematen dituzte ondare ahul hori babesteko eta baloratzen hasteko¹³. Bestetik, zentro horiek presentzia nabarmena dute arkitektura berriaren garapenean, nazioartean. Horren inguruan uste dugu etorkizunean gure agintariek segitu beharreko bide garrantzitsua izan daitekeela hori.

Ondare-mota horretan beharrezkoa da hauxe kontuan hartzea: guztia kontserbatzea merezi ez badu ere, ezagutzea behintzat merezi du. Horregatik, ezinbestekoa da katalogazio-tresnak lehenbailehen egitea, etorkizunean bizkorrago jarduteko aukera egon dadin. Batez ere gaur egun, hirietako espekulazioek egun batetik bestera erakin edo multzo garrantzitsuak desagerraraz baitituzkete. Lehenago aipatu bezala, kontuan hartu behar da, orobat, ondarea bizkor zahar daitekeela, eta horrek erreakziorik gabeko berehalako esku-hartzea legitimatuko luke iritzi publikoari begira. Horregatik, etengabeko kontserbatze-lanak eta aldizkako mantentze-lanak ondareak bizirik irautea egiten dute, behin-behinekoa izan arren.

Arkitekturaren museo horiek, arkitekturaren artxiboek edo arkitektura garaikidea aztertze zentroek eztabaida, jarduera eta sentsibilizazio handia sorrarazten dute ondare guztiaren inguruan eta, bereziki, ondare garaikidearen inguruan; kasu batzuetan, hirien garapenean bertan parte hartzen dute eta komunikabideetan presio handia egiten dute.

¹³ M.J. RUIZ DE AEL, *La memoria de la arquitectura y el urbanismo. El Patrimonio Documental*. Eusko Jaurlaritzaren Arkitektura eta Etxebizitza Saila. Gasteiz, 1998.

4.3. Arkitekturaren Euskal Museoa

Garai batean ondare-mota hori kontuan hartzen zen **gure autonomia-erkidegoan** eta Eusko Legebiltzarrak 1995ean Arkitekturaren museoa onartu zuen, Euskal Museo Nazionalen Planen barruan. Baina, gaur egun, badirudi ekimen hori ahaztuta dagoela eta Arkitekturaren Euskal Museoa paperetan bakarrik agertzen da. Puntu horretaraino iritsita, jarduera hori berriro piztea bila liteke; izan ere, garai batean, Arkitekturaren Euskal Zentroak EAEko arkitektoen 100 artxibo pribatu baino gehiagoz osatutako material garrantzitsua jaso zuen. Gutxi gorabehera 3.500.000 dokumentu jaso ziren, zuzenean XIX. eta XX. mendeko gure arkitekturari dagozkionak eta, erakundeen eta norbanakoen sentsibilitate faltarengatik, pixkanaka gure lurraldetik irten eta erakunde ekonomiko sinesgarriagoetara joaten direnak.

Profesionalen elkargoa izanda eta leku eta bitarteko mugatuak edukita ere, EAEko eta Nafarroako Arkitektoen Elkargo Ofizialaren lehentasunen artean ez da egon eta ez da egongo lan-mota hori, "mota txikikotzat" jotzen baita.

Arkitekturaren Munibe Sarien orain arteko edizioetan ikusi da EAEko arkitekto ezagunen lan profesionala ugaria dela, eta hori hasiera bikaina izan daiteke; baina, hala ere, oraindik inor ez da serio arduratu ondare-mota horretaz eta arkitektoaren bizitza eta obra zabaltzeko argitalpenak egitera mugatu dira.

Artium Arte Garaikideko Euskal Museoak, hutsune horren aurrean, zeregin horretan aritu nahi du. Baina interesatuago dago bere zirkuituetan garatzen diren arkitekturako nazioarteko erakusketak inportatzen. Gure erkidegoko arkitektura garaikideko materialekiko interesa ez da lehentasuna Artium museoarentzat, nahiz eta haren museo-politikaren barruan egon, baina hori justifikatzeko argudiatzen du fondoak behar bezala tratatzeko leku falta dagoela, lan horretan espezializatua den jendea behar dela eta, azkenik, jarduera hori behar bezala betetzeko aurrekontu espezifikorik ez dagoela.

4.4. Garatzeko aukera

Baina zailtasunak zailtasun, ondare honek **garatzeko aukera bikainak** eskaintzen ditu.

-Arkitektura garaikidearen identitateak, testuinguruak eta globalizazioak erronka berriak eranstean dizkio ondarearen kontserbazioari, metodologiari dagokionez (zer kontserbatu eta zergatik), teknikari dagokionez (artxibo informatikoak) eta geografiari dagokionez (mugen amaiera). Geroz eta euskal arkitekto gehiagok lan egiten dute munduko beste herrialde batzuetan, edo Euskadin lan egiten duten atzerriarrek; horrela, zorrotz aztertu ez den harremanen mundu bat sortu da, eta orain murgildurik gauden irudiaren eta informazioaren gizarte honetan aukera ugari gara ditzake horrek.

- Oraindik ez da serio aztertu arkitektura garaikidearen alderdi pedagogikoa; izan ere, ia bakarrik ikuspuntu profesionaletik hartzen da aintzat, eta eraikuntzaren sektorearen barruan sartzen da. Ia ezezagunak zaizkigu horren iturriak eta horiek gure arkitektura berriena sortzeko, osatzeko eta aztertzeko dituzten aukerak.

Hezkuntzaren balioa funtsezkoa da ondare hori legitimatzeko, besteak beste, alderdi hauek sustatuta: lanak ikustea eta zuzenean ezagutzea; arkitektura berri hori ezagutzeko eta azaltzeko klaseak, jardunaldiak eta ibilbideak; jakintza eta trebetasun teknikoen transmisioa; espainiar estatuari eta nazioarteari dagozkien trukerako bitartekoak bilatzea, etab. Ezinbestekoa da, beraz, berandu izan baino lehen konponbidea bilatzea eta jendea sentsibilizatzea sortzen ari den arkitektura berri hori ezagutzeko.